



## Euriak bustitako orientazio proba izan da Asteasuko Zaldi Festan

**PARTE-HARTZEA** ▶ Euria zela-eta 24 zaldun aritu ziren proban; gaur amaituko dute jaia ibilaldiarekin ▶ 5



Zaldunak banaka, binaka zein hirunaka irten ziren orientazio probako ibilaldia burutzeko. n. l.

**ASTEASU** ▶

**Elizmendi  
auzoaz aritu  
da Xabier  
Usabiaga**

«Txikitako oroitzapenak ekartzen dizkit», dio ▶ 7



**BATXILERGOA**  
Natur eta osasun zientziak  
Giza eta gizarte zientziak  
Arteak  
Eleanitza



**Aurrematrikula  
Ekainak 1-7**

**HEZIKETA ZIKLOAK**  
Diseinu Grafikoa  
Kirol Ekintzak  
*izan nahi duzuna!*



[www.barandiaranlizeoa.com](http://www.barandiaranlizeoa.com) 943213355 barandi02@ikastola.net

E. EZEIZA



## Bi astez luzatuko den jaian murgildurik

**ANOETA** ▶ Koadrillen egunarekin ekin zieten atzo anoetarrek herriko jaiei; gaur, dantzari txikien eta kirolarien txanda izango da ▶ 4

**ceipro**  
**Diseinua eta kreazioa halmonean  
oinarritutako heziketa**

- **DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA**  
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN  
GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA  
IRAILPENA - 2. hasierako / 2000 ordu  
SARRERA - LH1 - EE I - edo HSACI, BATXILERGOA gaituzten
- **ARTE GRAFIKODEN AURREINPRIMAKETAN TEKNIKARIA**  
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN  
GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA  
IRAILPENA - 2. hasierako / 2000 ordu  
SARRERA - 2. DBE - LH1 - EE I - edo DBE gaituzten

Logo of Barandiaran Lizeoa and other educational institutions.

## ASTEKO IRUDIA ▶



N. GARZIA/ I. TERRADILLOS



## Udal hauteskundeak izan dira bi eskualdeetan, aldaketekin eta errepikapenekin

**Erredakzioa** ▶ Hauteskunde kanpainaren ostean udal hauteskundeak izan ziren, joan den igandean, bi eskualdeetan. Asteazken zehar ere emaitzen inguruko balorazioak eta eztabaidak bizitu ditugu. Hala, batzuk alai, beste batzuk gustura, eta besteak hausnarketa egiteko unea dela esanez. Hori bai, beti gertatu ohi denez, irabazten dutenak gustura azaltzen dira euren emaitzak izugarriak izan direla esanez, eta emaitza hain onak lortu ez dituztenak, berriz, ez dute esan nahi izaten galdu egin dutela, eta emaitzak ere eurentzat onak izaten dira. Azken batean, beraien hitzak kontuan

hartzen baditugu denak izaten direla garaile. Datuak begiratzea, beraz, hobereena, bakoitzak bere ondoriak ateratze aldera. Eskualdeko hainbat herritan kasu, gobernu aldaketak izan dira datozen lau urteetarako; beste hainbatetan gauzak bere horretan mantentzen dira; beste askotan iskanbila ziurtaturik dago: EAE-ANVk boto gehien atera baina ilegalizatu duten herriak (Zizurkil, Ibarra,...) edota Lizartzan eta Elduainen PPK lortzea alkatetza dira, besteak beste, horien adibide. Ekainaren 16an osatuko dira udal gobernuak eta ordura arte itxaron beharko da gauzak argitzeko.

# hitza

# Harpidedunen txokoa

## Egin zaitez harpidedun!

HITZAREN HARPIDEDUN  
TXARTELAREKIN %5\*-eko  
BEHERAPENA izango duzu  
zure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko  
eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik  
eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

ILEA ETXANDEA  
**honekin**  
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44  
Santa Mari plaza, 1 behea

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 943 65 27 46

**ILUMINAZIOA**

**SHANTI  
KINOLAK**

Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**Avalon**  
osagaiak  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**MUGAR**  
Nafarroa etorb, 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

GUTUN@K ▶

Errepresioak ez du lortu ezker abertzalea suntsitzea

Ezker abertzalearen emaitzak zer esana emango diete PNV, estatu aparatuari eta estratega burgesi. Alderdien Legearekin ilegalizatuta joko kanpo utzi nahi zuten, bereaiek defendatzen duten sistema kapitalistara egokituta ez dagoen mugimendu iraultzailea. Baina ez dute lortu. Jipoiak jaso duena PNV izan da. «Estropoz» honekin ulertuko zuten seguruenik bere politikekin (ezker abertzalearen aurkako errepresioa, pribatizazioak, errektorte sozialak...) boterean egoteko erraztasunak gero eta gutxiago izan ditzakeela.

PNV, euskal burgesiaren eta kapitalisten interesak defenditzen dituen heinean, behartuta dago Euskal Herriko langile klasea eta gazteria erasotzera. Gainera, Trotskyk

esan ohi zuen moduan, sistema kapitalista dekadentzian aurkitzen denean (gaur egungo egoera) burgesia inoiz baino behartuago dago langile eta gazteen eskubideak, soldadak, pentsioak... erasotzera. Beharrezkoa da beraz langile klasea burgesiaren influentziatik ateratzea eta PNV eta euskal burgesiaren politikak eta interesak zein diren garbi azaltzea. Horregatik hain zuzen, iraultza sozialistaren beharra aldarrikatuz, nahitaezko lana izango da PNVri behin betirako bere kareta kentzea, bere benetako aurpegi kapitalista zapaltzailea agerian geratu dedin.

Datozen egunetan modu guztietako gobernua eta koalizioak ikusiko ditugu. Hala ere, Trotskyk zioen moduan, nahiz eta hauteskunde emaitzek eta osatzen diren gobernuak garrantzia izan, klaseko gatazkarentzat inoiz ez da garrantzitsuena izango aritmetika, klaseko borrokaren dinamika baizik. Eta zein da dinamika?

Munduko edozein bazterretara begiratzen dugula ere, esaldi batekin definitu genezake oinarritzko prozesua: sistema kapitalistaren dekadentzia eta klase arteko tentsio handitze azpimarragarria. Langile klasearen eta gazteriaren bizi baldintzak okerrean doaz enpresariak inoiz baino gehiago irabazten ari direnean. Baina zoritxarrez, langileen alderdiak eta sindikatuak zapalkuntza honi aurre egin beharrean politika iraultzaile batekin, burgesia eta patronalarekin ondo konpondu behar gara defenda dute hauekin akordioak bilatuz. Ez dute ulertzen beharrezkoa dela benetako eraldaketa sozialista bat, ekoizteko indarren (fabrikak, bankuak, unibertsitateak, komunikabideak...) jabego pribatua aboltzea eta hauek langile, gazte eta herritarren gehiengoaren eskuetan jartzea. Ekoizteko indarrek gutxiengo baten eskuetan jarraitzen duten artean Euskal Herriko funtsezko arazoek (arazo nazionala eta

arazo sozialak) ez dute irtenbiderik aurkituko.

Etorkizunak klaseko borroka eskaintzen digu. Sistema kapitalista da leherketa sozialak eta iraultzak probokatzeko. Eta Euskal Herriko kasuan, bera baita bertako mugimendu iraultzailea biltzen duena, ezker abertzaleak hauteskunde hauen emaitzen bultzadarekin sistema kapitalistaren suntsiketari ekiteko sekula baino aukera hobea du. Autodeterminazio eskubidea hartuko lukeen programa sozialista bat defendatuz (burgesiaren expropiazioa) eta langile klasearen eta gazteriaren batasuna bultzatuz nazio ezberdinen gainetik eta beraz Galizako, Andaluziako, Korsikako, Parisiko... langile eta zapalduak erakarrit, posible izango da Estatu espainiar eta frantziar burgesekin behin betirako bukatzea eta Euskal Herria aske eta sozialista bat lortzea. Gaur egun, ezker abertzalea da ardura

historiko horri heltzeko ahalmena duen bakarra. Zorionak eta animoak ezker abertzaleari. Gora iraultza sozialista!

IBON ARTOLA ▶ EUSKAL HERRIA  
SOCIALISTA ALDIZKARIKO KIDEA

Jokin Bildarratzi

Zorionak udal hauteskundeak irabazteagatik, baina badakizu hauteskunde ez demokratikoak izan direla, ezker abertzaleak baldintzarik gaitzuenetan jokatu behar izan duela. Demokrazia edo ezkeriar den orok ezin du onartu erakundeek errespetu ez dezaten herritarren borondatea. Bi mila tolosarretik gora EAE-ANVko zinegotziak Tolosako Udalean egon behar dutela agindu dute. Horregatik, galdatzen dizut Tolosarrok emandako botuak errespetu ditzazun, aurreko legegintzaldian egindako iruzurrak gehiago gerta ez dadin. Arrazoizkoa eta bidezkoa delako. Konponbidea eraikitzeko.

INAZIO AGIRRE AGIRRE ▶ TOLOSAKO  
EZKER ABERTZALEKO KIDEA

TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

Zergatik uste duzu eman dela aldateka Leitzan hauteskundeetan?

EAren arrakasta itzela eta UPN nahiz ARALARren porrot nabarmenak, leitzarren artean lortu duten sinesgarritasunarekin lotuta dagoela uste dut. EAren zerrendan, oro har, leitzarrek interes pertsonalik ez duen jendea ikusi dutela uste dut, herriaren eta herritarren alde dohain lan egiteko prest dagoen jendea alegia. Bestalde, UPN eta ARALARren zerrenden inguruan mesfidantza nagusitu dela esanen nuke, izan ere horietan ikusten den jendearen interesak ilunak baitira. Bi talde hauek galdu duten hainbat boto Eusko Alkar-

tasunera joan direla esanen nuke, alderdi honen gorakada eraginez, EAE-ANVri kontra egiteagatik bereziki.

HERRITAR BAT ▶ LEITZA

Ni ez naiz Leitzarra baina entzun dudanez, Zabaleta Jaunak ez du oso irudi ona herrian: entzun dut etxe-etxe ere ibilia dela kasik botua eskatzen Aralarrentzat. Zurrumuruak dira. Hala ere harrigarria egiten zait Aralarrek lehen alkatetza izan eta orain zinegotzirik ere ez lortu izana: dakien norbaitek emango al luke azalpenik asuntuari buruz? Eskertuko genuke, ez dakigunok...

KANPOTIK ▶

Espero al zenituen

hauteskudeen emaitzak?

Kaixo guztioi! urte asko daromat Tolosan bizitzen eta oso gustura nago Tolosan eman diren emaitzekin. Jokin Bildarratz berriri ere alkate izatea ona iruditzen zait herriarentzat, haren alde asko egin duela eta irudi ona eman diolako herriari. Dena ez zaio ongi atera baina orain beste lau urte izango ditu hori hobetzeko. Tolosarrok konfiantza dugu beregan eta hori somatu da hauteskudeen emaitzetan. Zorionak!

TOLOSARRA ▶

Batzuk gustura eta beste batzuk «disgustura». Ni ere tolosarra naiz baina ez nago hain pozik. Hasteko, hauek ez dira

hauteskunde demokratikoak izan eta ia-ia 2.000 tolosar ez dira ordezkatuak izango datozen lau urte hauetan. Jarraitzeko, jende asko ez da jun bozkatzera eta galdetzeko alderdiei zergatik izan den... Azken Udalak irudi oso txukuna jarri dio Tolosari baina benetako arazoei ez die behar bezala aurre egin: gerontologikoa, Voith-Gorostidi, AHT... gizartearen eragin zuzena dutenak. Ikusiko dugu lau urte hauetan nola garatzen den legealdia.

BESTE TOLOSARRA ▶

Nik ez dut bozkatu. Nazka-nazka eginda naukate demokrazia aldarrikatzen dutenek botoaren beharraz hitz egiten dutenean. Zer zor diet bada nik haiei? Zeinek esan du beharrezkoa dela nira bozka? ezarritako sistema mota bat baino

ez da demokrazia eta nik haien joko horretan ez dut parte hartu nahi. Ez naiz horretan sartuko. Jende askori entzuten diot ez bozkatzera erokeria dela, gero ez dudala keitzeko eskubiderik. Horixe iruditzen zait, hain zuzen, dudan eskubide bakarra: keitzearena. Gizartea konformistegia dela iruditzen zait. «Aukera hauek dituzu eta zuk horietako batean sartu behar duzu». Zergatik sentituz behar dut nik identifikatuta aukera horietako batekin? Eta bat bera ere ez badut gustuko? Gizarteak ezartzen dituen arauetatik ateratzea ez al da baina nahikoa aukera?

AITOR ▶

Ados nago, nik ez dut bozkatu, ez naiz ia-ia ezertaz enteratu. Politikariekin nazkatuta nago.

JOSUNE ▶



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldekohitza.info  
Tel.: 943 65 56 95

## ANOETA ▶ GIZARTEA

# Kolore biziz jantzita atera dira anoetarrak

Koadrila egunarekin eman zieten hasiera atzo jaiei; gaur berriz, dantzari txikien eta kirolarien txanda izango da

## ESTI EZEIZA

Gorritz, berdez, urdinez, mo-rez... Bakoitza bere koadrilaren koloreko alkandora jantzi, eta horrela hasi zituzten anoetarrak herriko jaiak. Indartsu hasi zituzten festak atzo. Hala, Anoetako festen txupinazo ofiziala astezkenean bota behar badute ere, koadrilen eguneko txupinazo eta kalejira egin zuten atzokoan.

Koadrilak izan ziren beraz protagonistak jaietako lehen egunean. Adin guztietakoek hartu zuten parte antolatuturiko ekitaldietan. Hasteko, goizean, Udal pilota eskolak antolatuturiko X. Eskuzko Pilota Herri Txapelketako finalak jokatu zituzten. Ondoren, lehen aipatu bezala, koadrilen eguneko suziria jaurti zuten eta kalejira egin



Ehunka lagun bildu ziren bazkarian eta ondorengo jokoetan. E. E.

zuten musikaz animaturik Anoetan barna. Jarraian bazkaria, frontoia bete-bete eginda egon zen une horretan. Bazkal ondorengo tertulia azkarraren ondoren, jokoan txanda izan zen. Bazkaltzen jan eta edandakoak botatzeko aprobetxatu zuten askok. Hortik aurrera, BTK batukada taldearen kalejira, afaria eta erromeria izan ziren plaza. Jai giroa goizaldera arte luzatu zutelarik.

## Dantzari txiki eguna

Biharamunarekin hasiko dute askok eta askok gaur eguna, baina, hala ere, izango da zer ikusi eta eginik gaur ere Anoetan. Hasteko, 10:00etan, herri lasterketa izango da. Garai berean hasi, eta goiz osoan zehar ikusi ahal izango da baserritarren azoka. 11:00etan, herri kiroltako erakustaldia izango da. 12:00etan hasita, pilota partidak eta Tolosaldeko txistularien kalejira. Eguerdian, 13:00ak aldera, txistulariek kontzertua eskainiko dute plaza. Arratsaldean, eskualdeko zenbait dantza talderen emanaldiak, eta Koldo Iparragirrenen trikiti doinuak izango dira Anoetako plazan ikusgai, eta entzungai.

## AZOKA ▶

## Euritsua eta bustia izan zen atzoko goiza Tolosaldean

Eguraldiaren pare goibela eta mantsoa izan zen salmenta postu gehienetan

## PABLO ALBERDI

Atzoko azokako giroa eguraldiarena izan zen. Goiz osoan euria bota zun, eta behelainoak ez zuen eguzkirik ikusten utzi. Mahaietako salmenten erriemoa mantsoa izan zen, eta nahiz eta produktuen eskaintza zabala izan, salmentak ere lasai xamarak izan ziren.

Produktuen aldetik, aipatzekoak babak, ilarrak, patata berria edo eta letxuak, besteen artean. Euriaren eragina ere nabaria izan zen produktuegan. Dirudienez, aurtengo San Joan sagarren uzta zertxobait atzeratuko da, eta hauekin gerez edo eta aranena ere bai.

Datozen asteetan eguzkia agertzerako, baratzeen piztuera izugarria izando da, eta mendietan ere nabaritu dugu eragin hau.

## ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Geranio hiedra	2,15	2,20
Xarbota	4,00	6,00
Hortentsia	12,00	-

<b>Bertako produktuak</b>		
Onddoa	30,00	-
Ziza	20,00	30,00
Lekak	2,50	3,50
Azenarioa	1,20	10,00

<b>Produktu ekologikoak</b>		
Sagarra	2,00	3,00
Baraburia	1,60	6,00
Tipula	1,75	2,00
Letxua	1,00	-

## TOLOSA ▶ ZESTA-PUNTA

## Herriarteko Txapelketan donostiarren aurka lehiatuko dira gaur

## ERREDAKZIOA

Gaur, goizeko 10:00etan hasita, Donostiako Balda pilotalekuan izango dira Tolosako puntistak donostiarren aurka jokatuko, Herriarteko Txapelketaren barruan.

Gaurkoa seigarren jardunaldia dute kirolariek eta tolosarrak sailkapenean lehenbiziko postuan badoaz ere, atzetik

puntu batera soilik, donostiarrek eta zumaiarrak dituzte. Beraz, eta bistakoa den bezala, finala bi taldek besterik ezin dutenez jokatu, tolosarrentzat garrantzia handiko jardunaldia da biharkoa, ezin baitute hutsik egin.

Jakina den bezala hiru kategoriatan jokatzen da Herriarteko Txapelketa: kadeteak (Tolosakoak: Izagirre, Bildarratz, Es-



Zesta-punta jokalariek. KJUSK

naola), jubenilak (Tolosakoak: Mujika, Gabarain, Telleria) eta seniorrak (Tolosakoak: Trabazos, Orrantia, Mujika, Sadaba).

## TOLOSA ▶

## Ezker abertzalearen batzarra bihar izango da

## ERREDAKZIOA

Tolosako ezker abertzaleak batzarrera deitu ditu bihar Tolosako herritarrek. Aipaturiko bilera Tolosako udalderako areto nagusian izango da, 20:00etatik aurrera, hain zuzen ere.

Besteak beste, udal hauteskunde balorazioa egingo dute.

hitza

Harpidedunen  
txokoa

HITZako harpidedunen artean **Astelehenean 16:30ean Beotibar pilotalekuan** jokatuko diren pilota partiduetarako sarrerak **zozkatu** ditugu! **Hauek dira irabazleak:**



aspepelota.com

- ▶ Eugenio Zubelzu (Ibarra)
- ▶ Izarne Garmendia (Berrobi)

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea

**Galarza V - Apeztegia**  
**Berasaluze IX - Nalda III**

**MTEZ. DE IRUJO - LASA III**  
**TITIN III - LASKURAIN**

**Del Rey - Arizmendi**  
**Apezetxea - Arruti**

ASTEASU ▶ AISIA

# Gaur emango diote amaiera Zaldi Festari ibilbidearekin

Atzo orientazio proba egin zuten Olarreako kanpetan; euria zela-eta partaidetza jaitsi egin zen eta 24 zaldun aritu ziren

**ERREDAKZIOA**

Udaberriaren azken hilabetean egonagatik, eguraldiak ez dio behar bezala erantzuten loleen urtaruari. Ez hego haizirik, ez eguzkirik, ... Euria, euria eta euria. Horixe ari du azken asteotan gurean. Eta horixe ari zuten, hain zuzen ere, atzo goizean, Asteasuko Olarreko kanpetan. Bertan antolatu zuten Zaldi Festa eta euria izan zen protagonista nagusia, bere presentzia etenik gabe sentitu baitzuten bertaratuek.

Hasiera batean, 60 zaldunek baino gehiagok eman zuten izena, baina 24 lagun baino ez ziren animatu. «Eguraldia dela eta, asko eta asko etxean geratu dira», azaldu zuen antolatzaile lanetan zegoen Juanan Aguacilek, Irungo Mendiko Orientazio Taldeko kideak. Hala ere, «gustura» zeuden antolatzaileak egunak eman zuenarekin. Adin guztietako jendeak hartu zuen parte erabat lokazturiko ibilbidean.

Egunari hamaiketakoarekin ekin zioten. Ondoren, zaldun

guztiak prest zeuden zaldi gainean probari ekiteko prest. «Hegoaldean estreinakoz antolatzen da orientazio proba bat zaldiekin, orain arte, pertsonekin baino ez dugu egin». Metodologia, haatik, antzekoa izan zen. Zaldunak binakako zein hirunakako taldeetan abiatu ziren irteeratik mapa handi bat eskuetan zutela, 14 kilometro inguru zituen ibilbidea burutzeko. Bidean 24 baliza aurkitu behar zituzten eta bertatik igaro zirela ziurtatzeko, euren tiketa markatu behar zuten bertan. «Bi edo hiru ordu inguru» iraun zituen probak, «zaldunek bestelako bideak hartuta, 20 kilometro inguru» egin zituztelako. Zaleturen bat edo beste ere gerturatu zen zaldi proba ikustera.

**Gaurkoarekin, amaiera**

Probaren helburuaren harira, «ibilbide polita egitea» zela argitu zuen antolatzaileak, «denborak hartuko ditugun arren». Atzokoa horrekin amaitu bazen ere, gaur badute zer gozatu. Parte-hartzaileen artean sariak banatuko dituzte eta guztiok batera beste ibilbide bat egingo dute. Horren ostean, Olarreko-Goiko jatetxean bazkari legea egingo dute zaldunek.



Irteeraren aurretik zaldun guztiak kanpan bildu ziren. N. L.



Zaldunek binaka zein hirunaka burutu zuten ibilbidea; adin guztietakoak bildu ziren bertan. N. L.

TOLOSA ▶ INGURUMENA



## Horma pintura Triangulon klima aldaketa irudikatuz

**Erredakzioa** ▶ Iñaki Epelde eta Jose Luis Longaronen eskutik, atzo goizean horma pintura marraztu zuten Triangulon, hainbat herritarrek lagunduta. Helburua klima aldaketari buruzko marrazkia egitea izan zen, Aste Berdearen baitan. Tolosako Eskola Agenda 21 en parte hartzen duten neska-mutilek ere musika eta bertsoekin alaitu zuen ekitaldia. E. EZEIZA

# OINKARI

dantza taldeak

*aurkezten du:*

“aspaldikotik”

Dantzariak: OINKARI dantza taldea  
 Dantza zuzendaria: Edu Murumendiaraz  
 Musika zuzendaria: Xanet Arozema  
 Soinu teknikaria: Unai Moraza  
 Argien diseinua: Carlos Solano  
 Argi teknika: Iker Ugaldé  
 Testuaren egilea: Juan Kruz Igerabide  
 Narrazioak: Iñaki Bereaite

Ekainak 16 larunbata, gaueko 22:30tan  
 Billabonako Olaederra kiroldegian  
 Sarrera 5 €

OHARRA: Sarrerek salgai Billabonako Olaederra kiroldegian ondoko egunetan:  
 Ekainak 11, 12, 13, 14 eta 15 (11:00-13:00 eta 17:00-20:00)  
 Ekainak 16 (11:00etatik aurrera egun guztian)

www.oinkari.net  
 99 posta kutxatila, 20150 Billabona (Euskal Herria)

hitza

KOLDO ETXABE ▶ DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEAREN ALDEKO ELKARTEKO KIDEA

# «Oso zaila da duin hiltzea bizimodu duinik izan gabe»

Nork bere bizitzari buruzko erabakiak hartzearen alde dago, Estatuaren, Jainkoaren eta gerra guztien gainetik

KEPA URBIETA (Berria)

Koldo Etxabe (Tolosa, 1953) Duintasunez Hiltzeko Eskubidearen Aldeko elkarte kide da, 1986tik. Ez du lanbidea, norbanakoaren askatasunean urrats bat gehiago egiteko bidea baizik.

## Eutanasiak zertarako balio du?

Norbaitek gaixotasunen batengatik bere bizitza ez dela duina irizten badio eta egoera hori bukatu nahi duela erabakitzen badu, hala izatea defendatzen dugu. Pertsonen askatasunerako balio du.

## Ba al du mugarik?

Ez, ez du mugarik behar, arautzea behar du. Askatasunaren izenean borondatearen aurka guzaki egin daitezke. Gerta daitezke, adibidez, pertsona baten ingurukoek, interes batzuk tarteko, haren heriotza aurreratu nahi izatea. Hori arautu egin behar da.

## Eta zer gertatzen da norbaitek erabakitzen badu ez dela bizitzen jarraitu nahi, nahiz eta aurrera ateratzeko aukera izan?

Norberak erabaki beharko du,

pertsonen askatasunaz ari baikara. Batzuek esaten dute bizitza Jainkoak eman digula eta berak bakarrik kendu ahal digula. Beste batzuek, eman ez digun arren bizitza Estatuarena dela eta berak erabakiko duela noiz hil behar dugun. Eta, azkenik, beste batzuek inolako arazorik gabe esaten dute pertsonak ezin dutela euren bizitzaz erabaki. Bitartean, egunero milaka pertsona hiltzen dituzte munduan, eta txalotu egiten dute.

## Duintasun kontua dela diozue.

Norbaitek pentsatzen badu daraman bizimodu eta ez dela duina eta etetea erabakitzen badu, duin hiltzea deritzogu. Ez sufrimendu fisikoa dutelako bakarrik. Askorentzat, sufrimendu psikikoa fisikoa bezain garrantzitsua da. Askorentzat, ez da duina ohe batean mugitu ezinik eta landare baten gisa egotea, Ramon San Pedro eta Madeleineren kasuan bezala.

## Bizitza heriotza baino lehena-gogoa dago; beraz, garrantzitsuagoa al da?

Heriotza eta bizitza ezin dira banandu. Heriotzarik ez dago bizitzarik gabe, eta bizitzarik ere ez heriotzarik gabe. Modu duinean hiltzearen alde gaude la esaten dugunean, lehenda-bizi modu duinean bizitzeaz ari gara. Oso zaila da duin hiltzea bizimodu duinik izanik gabe.

## Orduran, zergatik horrenbeste arazo heriotzaz ari garenean?

Judu-kristau ideologiaren menpe daudenean heriotzarekiko tabua sortu zuten, eta oraindik eusten diote. Ideia horiek oraindik ere indar handia dute. Kontraesan handi batean gaude, heriotzaz inguratuta bizi garelako. Komunikabideak ikusi besterik ez dago: heriotza egunerokoa da. Tabu handia dago, eta, noski, Estatuaren eta justiziaren pean dagoen zerbait da.

## Zergatik Estatuaren pean?

Lehen esan dut norbanakoa-



HITZA

ren askatasunaren baitako gaia dela, eta Estatuari ez zaizkio inondik inora ere pertsona askeak interesatzen. Gutxi pentsatzen duen jendea eta esanekoa behar du botereak. Lau urtean behin boza emateari deitzen diote askatasuna, eta horixe bakarrik interesatzen zaie.

## PSOEek Espainian eutanasiaren aldeko legea aterako zuela adierazi zuen. Zertan da?

Bazirudien sozialistek zerbait egiteko asmoa zutela, hauteskunde programan adierazi zuten bezala. Legealdi hasieran ere, *Mar adentro* filmaren estreinaldian izan ziren bospasei ministro, Zapatero buru zutela. Baina hilabete batzuetara ikusi zen ez zela horrela izango. Ez dakit ze arrazoirengatik, ezer ez zutela egingo esan zuten, adostasunik ez zegoelako. Oso polita geratu zitzaizkien; gauza guztiak bat etorritako egingo babilutze...

## Zer egingo duzue?

Ideiak defendatzen jarraitu beharko dugu, eta bazkideei laguntzen. Madeleinek bakarrik hil ordez konfiantzako norbaitek inoiz nahi zuela eskatu zuen, alegia, ekintza horrekin ados zegoen norbaitek. Heriotzaren tabuari egingo diogu aurre.

## Aurrerapausoak egin dituzue, ordea: bizi-testamentua kasu.

Bai. Elkarteak sortu zenetik (1984) defenditu ditugun legearten bizi-testamentua garrantzitsua beharra izan da. Elkarteak beti eduki izan du,

eta bazkide garenok egina dugu. Lehen ez zegoen lege onartua, baina orain ia Espainiako Estatu erkidego gehienetan onartu dute, eta batzuetan bizi-testamentuen erregistroa ere onartu da, gurean gertatu bezala. Erregistroarekin, testamentua bete duten guztiak kopia bat utzi dezakete Osakidetzan, eta hala, zerbait gertatu eta hitz egiteko modurik gabe geratu gero, haien historial medikoarekin batera bizi-testamentua egina dutela agertuko zaie. Garrantzitsua, ordea, testamentua egin duen pertsona horrek, momentua iristean, erabaki hori defenditzen lagunduko dioten lagunak izango dituela ziurtatzea da.

## Elkartea aipatu duzu. Zein da zuen egunerokoan eginen duen lana?

Gure elkarte oso txikia da, alegia, jende gutxikoa. Gainera, zati handi bat jende nahiko heldua da, heriotza laster ate joka helduko zaiola ikusten duena. Beste asko, berriz, gaixotasun sendaezin eta ezin itzulizko duena. Horrek esan nahi du jende gutxi gabela eta guzaki egiteko are eta gutxiago gabela. Hori dela eta, ideiak defendatzea eta elkartea egituratzea da gure lana. Orain arte, Espainiako Estatuaren elkarte bakar bat zegoen, eta gaur egun sei elkarte autonomiko izatera iritsi gara. Askok kostatuko moldaketa izan da. Barruan ere lana egin beharra dago, aipatu dugun bizi-testamentua atera dugu, tarteka ez-

## DUIN HILTzea

«Daraman bizimodu duina ez dela eta hura etetea erabakitzen badu, hori duin hiltzea dela iruditzen zaigu»

## MORBOA

«'Indizio hilgarria zuek ematen al diozue?' eta horrelako galderak egitea da guretzat morboa»

## ESKAERA

«Eusko Jaurlaritzari behar den lekuan pertsonaren askatasuna defendatzeko eskatu nioke»

tabaida batzuk sortzen dira zorionez... Okerrena da ez daukagula jendaurrean aritzeko prest dagoen inor.

## Zein da zure iritzia komunikabideek horrelako gaiak jorrazteko duten moduz?

Komunikabide gehienek zerbait gertatzean lantzen dute, morbo hutsaren atzetik, gaierik inolako interesik gabe. Salbuespenak badaude, zorionez.

## Zer da morboa?

Gaia orokorrean lantzeari uko egitea da morboa, eta, adibidez, indizio hilgarria zuek ematen al diozue? eta halako galderak egitea.

## Zer eskatzen diezu hedabideei?

Kasuren bat gertatzean ondo dokumentatzeko, ez emateko garrantzia gertaerari bakarrik, baldintzak lantzeko, elkartearen zein harreman izan duen ikertzeko. Eutanasiaren alde dagoen jende gehiagoren iritzia bilatzeko ere bai, normalean aurka daudenei gehiago ematen zaielako hitza, gizartearen horrela ez den arren. Azken batean, lana serio egiteko, gezurrik esan gabe eta guzaki asmatu gabe.

## Eta eskatzen hasita, Eusko Jaurlaritzari zer?

Eman dituzten pausoak sendotzeko eskatuko genuke. Testamentua hor dago, baina Osakidetzan lan egin behar da, medikuak eta erizainak prestatu, legea zertan datzan azaldu, bioetikako komiteen hitzaldiak antolatuz, alde dauden mediku eta erizainek askatasunez defendatzeko aukera izan dezatela ziurtatu... Hortik aurrera, behar den lekuan pertsonaren askatasuna defendatzeko eskatuko nioke.

## iragarki laburrak ▶

### LANA

Zaintzailea. Uztaillean, goizez, Tolosa inguruan haur bat zaintzeko prest nago. Interesatuak deitu 616 077 066 telefono zenbakira.

### ALOKAIRUAN

Taberna. Alegin, taberna alokatzen da herriaren erdigunean. Interesatuak deitu 635 71 97 86 telefono zenbakira.

### GALDUTAKOAK

Zakurra. Artzai bakur beltz bat galdu da Uzturren, Mendi izenekoa. Deitu 600 372 337 telefono zenbakira.

## ASTEASU ▶ GIZARTEA



Xabier Usabiaga, Elizmendi auzoan. JON URBE / ARGAZKI PRESS

## IÑAKI GURRUTXAGA (Berria)

**H**aurtzarora eramaten nauelako». Horrelaxe, bote lasterrean erantzun dio Xabier Usabiaga Oiarzabal (Asteasu, 1969) txirrindularitza adituak kazetariaren galderari. Asteasuko Elizmendi edo Elemendi auzoak umea zeneko kontuak ekartzen dizkio gogora. Auzo horretako etxe batean jaioa eta bizia da, eta auzo kasko horretan egin zituen lehen korrika saioak. San Pedro parrokiaren arkupe, atari eta inguruak ziren lagunen elkargune. «Eskolatik atera, eta arkupeetara etortzen ginen pilotan eta futboleko jolasera. Lekua egokia zen, ez zegoen zirkulaziorik, eta gurasoek lasai uzten ziguten hona etortzen», zehaztu du.

Iraganean hitz egiten du, baina oraina ere badu kasko horrek Usabiagarentzat. Bertan dago Asteasuko Herri Eskola, eta guraso den heinean, egunero eramaten ditu Maddi eta Elene alabak eskolara. Orain bai, orain auto gehiago dabil Elemendiko kale zahar eta estuetan. Umeak autoan hartu, eta presa antzean dabilta gurasoak haurrak eskolara garaitz eramateko. Usabiaga bera ere korrika txikian jaitsi da, bi alabei eskutik helduta. Haren haurtzaroak eta bi alabek bat egin dute auzo horretan, baina inondik ez dira lotzen orduko eta egungo ibilerak.

Auzo koxkorra da Elizmendi, baina ez edozein modutakoa. Asteasuko lehen herrigunea izan zen. Parrokia du gorenean, Goiko Ostatu izeneko etxea haren barrenean, eta Elemen-

## «Umetako beldur eta magiak gogorarazten dizkit Elizmendik»

Elizmendi edo Elemendi auzoan jaiotakoa da Xabier Usabiaga; txikitako sentipenak azaleratzen dizkio auzoak



Txirrindularitzari lotuta bizi da Xabier Usabiaga. A.E.

diko Iturria bien magalean. Kale baserriz hornitutako auzoa da. Denborarekin, ordea, beheko ordeko herrigunea izan da hazi dena. Udaletxea, plaza, pilotalekuak, parkea eta gainerako azpiegiturak behean eraiki dituzte, eta huraxe da gaur Asteasuko gune nagusia, Kalea izenekoa.

Egun ez da orain dela 30 urteko ume hotsik aditzen elizaren arkupeetan. «Orain umeek ez dute jostatzeko astirik». Haiak umeak zirenean txistura eta dantzara joaten zirela bai, baina gaurko haurrak eskolaz kanpoko jarduera asko dituztela dio. «Kalerako joera gehiago genuen guk. Orduan, herri txiki guztietan gertatzen zen moduan, gauza asko egoten zen elizaren inguruan. Lehen zegoen ostatuan erosten genituen galleta eta litxarrera guztiak».

### Muino «erakargarria»

Txori hotsa lagun duela, behe lainoaren lozorrotik esnatzen ari da Elemendi. Gandu bada-

go ere, Aiztondo bailararen berdea ageri da parez pare parrokien bueltako harresitik. Esnatze dotorea, udaberria gertu dagoen seinale, beraz. Bertan eseri, eta arkupeei begira dagoela segitu du Xabier Usabiagak kontakizuna. «Partidak jokatzen genituen hortxe, askotan apaiza meza ematen ari zela». Sesio bat edo beste izan zuten bihurrikeria horienatik, baina umorez gogoratu ditu.

Umetako sentipenak azalarazten dizkio Elemendik. «Elizaren inguruan sortzen den isiltasunari umetan hartzen zaizkion beldur eta magiak gogorarazten dizkit». Usabiagak uste du herriko jende askori egiten zaiola erakargarri muino horren patxada, eta nabarmendu du Bernardo Atxaga idazle eta herrikideak ere «askotan» aipatu izan duela bere idatzietan.

Kontutarako leku atsegina eta patxadakoa izan arren, Usabiagak ez du halakorik azken boladan. Orain gutxi Manex izeneko mutikoa jaio da, eta hari denbora eskaini nahian dabil, baina nekez lortzen du tarterik. Hizketan hasterako esana zuen presaka zebilela. «Jende gehientsuena ere antzera dabil, oraingo gizarte ero honen zurrumbiloan harrapatuta».

### Txirrindularitza «pasioa»

Etxean ez ezik, lantokian ere bete-betean ari da, hasi baitira txirrindularitza denboraldiko lehen lasterketa sonatuenak. «Hor dago borroka. Batetik, txirrindularitza, nire lana eta pasioa da, eta bestetik, familiaria eskaini nahi eta behar diodan denbora dago». Euskal Telebista eta Euskadi irratian txirrindularitzari buruzko informazioa bildu eta xehatzen du Usabiagak.

Lanera abiatu aurretik, denboraldi hasierari buruzko go-goeta egiteko prest agertu da. Haren esanetan, iazko Puerto operazioaren «mamuak» segitu egiten du. «Mugarri bat izan zela iruditzen zait, eta ziklismoak hoberako bidea hartuko duela uste dut». UCI-Pro Tour elkartearen eta txirrindularitza proba garrantzitsuenen antolatzaileen artean dauden liskarrak logikaren barruan ulertzen ditu. UCI Nazioarteko Txirrindularitza Elkargoa jorratzen ari den bideak «alde txarrak» badituela aitortu arren «ziklismoaren iraultza» ekarriko duela uste du, ziur esaten baitu txirrindularitzak «sakoneko aldaketak» behar dituela. Halaberrez bada ere, Elizmendik badaki zer den hori.

**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Albiztur.** Kultur Astea bukatzeko pilota partidak izango dira. Share modalitatearen erakustaldia eta ondoren, Telleria-Tellebexea, NARBATE-Senperenaren kontra, eta lau t'erdian, Renobales Olaetxearen aurka.  
**Leitza.** Artisau azoka 09:30etik 13:30era eta arratsaldean talo egileak plazan, Kultur Astean.  
**Lizartza.** Inaren IX. urteurrena: mendi marxa Axurdariora 09:00etan, omenaldia monolitoan 13:00etan eta bazkaria 14:30ean Txirrita elkartearen.  
**Tolosa.** Laskorain Ikastolaren Eguna: bizikleta ibilaldia 10:30ean, hamaiketakoa, herri kirolak, ginkama eta alxorrenen bila, ikasleen emanaldiak (dantzak, abesbatza, antzerkia), bazkaria, jokuak Kazkabarrarekin, Pobin eta Patxin pailazoak eta dantzaldia Unsain anaiekin.  
**Tolosa.** Bihar ezker abertzaleak batzarrera deitu du 20:00etan udalekeko pleno aretoan.  
**Tolosa.** Sanjoanetako zezenketa ekainaren 17an izango da. Sarrerak salgai Asteasuarra, Fronton, Orue, Cantabrico eta 66 tabernetan eta zezen-plazan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga 7, 112.  
**Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

**Bihar**  
**Lekunberri.** Mendia, B. Arala, 25, 112.  
**Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

# Oporrak hemen dira!

**TOLOSALDEA ▶** Tolosa, Villabona, Ibarra eta Zizurkilgo zenbait ikastetxek ikasturte amaierako festa ospatu zuten atzo, egun guztian zehar



Zizurkilgo Pedro Mari Otaño eskolako eta Villabonako Jesusen Bihotzakoen ikasturte amaierako festako une bat. E. EZEIZA



Ibarrakoe, Uzturpeguean, pilota partidak, eta Tolosako Samaniegokoe, ikasleen emanaldiak. E. E./ I. G.

**ESTI ZEIZA**

Ikasturteak bere onenak eman ditu eta opor giroa nabari da jada eskualdeko ikastetxeetan. Behar den bezala amaitzeko Tolosaldeko laurak festa bat egin zuten atzo. Antzerkiak, dantzak, jokuak, krosak, pilota partidak... ez aspertzeko adinako gauzak antolatatu zituzten Tolosa, Villabona, Ibarra eta Zizurkilgo ikastetxe-etakoe. Dena den, atzokoa amalera festa bazen ere, oraindik egun batzuk geratzen zaizkie ikasturtea bukatzeko.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
**Loinaz Peña Olazabal (Tolosa).** Gaur 3 urte. Ebekoen partetik, bereziki Jon Ander eta Ane.

**URTE ASKOAN**  
**Maria Goenaga (Alkiza).** Gaur 86 urte. Holaxe jarrai dezazula maja-maja amoi.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletzeko bulegoa

**hitza**  
 agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...



**IES Hernani BHI**  
 A. ITURRIAGA Santa Barbara auzoa z/g - 20120 HERNANI - Tel.: 943 551188 FAXA: 943 552271  
 K. LABAKA Karmelo Labaka 7 - 0120 HERNANI - Tel.: 943 551958 FAXA: 943 330550  
 e-mail: institutua@hernanibhi.com www.hernanibhi.com

**ELEKTRIZITATEA**  
 Ekipo eta instalazio Elektroteknikoak (Erdi Maila)  
 Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)

**MEKANIKA**  
 Mekanizazioa (Erdi Maila)  
 Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineazio mekanikoa) (Goi Maila)

**AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 1etik 7ra**

